

TOLOMENDIREN TITULARTASUNeko NEKAZARITZAKO MAKINARIAREN ERABILERA ETA ALOKAIRUAREN BIDEZ, NEKAZARITZAKO MAKINARIA ZERBITZU EMAILEAK HAUTATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. XEDEA

Oinarri hauen xedea da Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea Tolomendiren titulartasuneko nekazaritzako makineria alokatzeko eta erabiltzeko interesa duten ekintzaileak hautatzeko baldintzak arautzea.

Helburua da:

- Tolosaldeko lehen sektoreari nekazaritzako gutxieneko zerbitzu batzuk ahalbidetzea,
- laguntza publikoarekin finantzatutako ondasunen erabilera egokia ziurtatzea,
- nekazaritza jardueraren jarraipena sustatzea,

Oinarri hauetan aurreikusitako harremanak izaera zibil edo merkantil hutsa izango du.

2. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako nekazaritza sektorearen ezaugarri estrukturalak —mendialdeko orografia, lursail txiki eta sakabanatuak, nekazaritza ustiategi profesional askoren tamaina ekonomiko txikia eta mugatua eta nekazaritza jardueraren gutxieneko errentagarritasun zailtasunak—eta gure lurraldearen baldintza klimatologikoak kontutan hartuz, beharrezkoa egiten dute nekazaritzarako zenbait lan egiteko zerbitzuak egotea.

Azken urteetan belarra jasotzeko moduetan nagusitu da belar bolak egitea. Ustiategi handienek belarra modu honetan maneiatzeko makina propioak dituzte baina ustiategi profesional txikienek ezinezkoa dute makina propio baten inbertsioa egitea eta azken urteetako esperientziak erakutsi du, baserritarrak beraien artean antolatzeke zailtasunak dituzte makinariaren erabilera partekatu bat egiteko.

- nekazaritzako makinariaren kostu handiak,
- erabilera intentsibo laburrak,
- eta zerbitzu espezializatuen eskasiak,

zaildu egiten dute makinaria zerbitzuen antolaketa eredu guztiz pribatu eta merkantil bat.

Testuinguru horretan, Tolomendik nekazaritzako makinaria eskuratu du landa garapeneko programa publikoen laguntzarekin eta deialdi honen bidez zerbitzu emaleen esku jarri nahi du. Erakunde publiko eta eragile pribatuen arteko elkarlana beharrezkotzat jotzen da, lehen sektorearen jarduera ekonomikoa indartzeko.

3. MAKINARIA MOTA, XEDEA ETA ERABILERA

Testuingurua kontutan hartuta, belar bolak egiteko zerbitzua ahalbidetzera dator deialdi honen bidez bideratu nahi den makinaria mota.

Makina hauen bidez bideratzen den zerbitzuaren xedea ustiategi profesional ertain edo eta txikiei zerbitzu bat ahalbidetzea da.

Makineria erabilgarriaren artean daude:

- Errotoenfardagailua, (Kuhn VB 3260)
- Belar bolak plastifikatzekoa, (McHale W2020)

Makineriaren egoera teknikoa, erabilgarritasuna eta baldintzak kontratu bakoitzean zehaztuko dira.

Tolomendik erabilera lehentasunak ezarri ahal izango ditu interes publikoaren, erabilgarritasunaren edo kanpainen antolaketaren arabera.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute:

- RETAn alta emandako autonomoek,
- nekazaritza zerbitzu enpresek,
- nekazaritza kooperatibek,
- nekazaritza sozietateek,
- ...

Parte hartzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- jarduteko gaitasun juridikoa izatea,
- zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea,
- lan arriskuen prebentzio araudia betetzea,
- erantzukizun zibileko aseguru nahikoa edukitzea,
- makinaria erabiltzeko gaitasun teknikoa egiaztatzea,
- eta nekazaritza zerbitzu profesionalak emateko benetako gaitasuna izatea, traktore propio bat izatea besteak beste.

5. HARREMANAREN IZAERA JURIDIKOA

Tolomendiren eta esleipendunen arteko harremana izaera zibil edo merkantil hutsekoa izango da.

Ez da inolaz ere:

- lan harremanik sortuko,
- mendekotasun laboral egoerarik eratuko,
- ezta enplegu harremanik interpretatuko ere.

Esleipendunek jarduera autonomia osoz antolatuko dute:

- lanen zuzendaritza,
- bezeroekiko harremanak,
- giza baliabideen antolaketa,
- ordutegiak,
- eta jardueraren arrisku ekonomikoa.

Tolomendik ez du:

- lan ordutegirik ezarriko,
- langilerik koordinatuko,
- zerbitzuen eguneroko zuzendaritzarik egingo,
- ezta lan aginterik emango ere.

6. ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK

Esleipendunek honako betebeharrak izango dituzte:

- nekazaritza zerbitzu profesionalak ematea,
- makinaria egoera onean mantentzea,
- segurtasun araudia betetzea,
- ohiko mantentze gastuak bere gain hartzea,
- eta makinaria soilik baimendutako jardueretarako erabiltzea.

Era berean:

- Tolosaldeko ustiategiak lehenetsiko dituzte,
- zerbitzuaren irudia eta profesionaltasuna zainduko dituzte,
- eta Tolomendirekin lankidetzan jardungo dute kontrol teknikoetan.

7. TRAZABILITATEA ETA ERABILERA KONTROLA

Esleipendunek makinariaren erabileraren erregistro bat mantendu beharko dute.

Gutxienez honako informazioa jasoko da:

- erabilera datak,
- erabilera orduak,
- egindako lan mota,
- lana egina izan den udalerrria edo kokapena,
- eta beharrezkoak diren bestelako datu teknikoak.

Tolomendik:

- GPS sistemak,
- ordu kontagailuak,
- lan parteak,
- edo kontrolerako mekanismo teknikoak ezartzea eskatu ahal izango ditu beharrezko ikusten badu.

8. PROTOKOLO TEKNIKOAK ETA MANTENIMENTUA

Tolomendik gutxienerako protokolo teknikoak ezarri ahal izango ditu:

- segurtasun erabilera,
- garbiketa,
- mantenimentu prebantiboa,
- biltegiatzea,
- dokumentazio teknikoa,
- eta konponketa prozedurak arautzeko.

Esleipendunek:

- makinen ohiko higadura/desgaste elementuak,
- mantenimentu arrunta,

- lubrifikazioak,
- eta eguneroko kontserbazio lanak bere gain hartuko dituzte.

Kontratu bakoitzean zehaztuko da:

- zein gastu diren esleipendunarenak,
- zein diren Tolomendirenak,
- eta matxuren erregimena.

9. ALOKAIUAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

Makineriaren erabilera ordaindua izango da.

Urteko kanon edo alokairu ekonomikoa kontratuan ezarriko da, honako elementuak kontuan hartuta:

- makinariaren balioa,
- egoera teknikoa,
- erabilera intentsitatea,
- mantentze arriskuak,
- eta interes publikoaren ikuspegia.

Makineriaren zahartze egoera eta zerbitzuaren interes publikoa kontuan hartuta, egokiagotzat jo daiteke:

1.000 €/urteko kanon finko bat

Eta erabilera aldakorren arabera kanon osagarria:

- bola kopuruko: **0,25 €/bola** bakoitzeko.
- Tolosaldekan kanpoko baserritarrei egindako bola bakoitzeko kanona **2 €/bolako** izango da, beti ere herri horietako udalek Tolomendirekin elkarlanerako hitzarmenik bideratzen ez duten.

Tolomendik fidantza edo berme ekonomikoak eskatu ahal izango ditu.

10. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Eskabideak honako irizpideen arabera baloratuko dira:

Irizpidea	Gehieneko puntuazioa
Nekazaritza zerbitzuetako esperientzia	25 puntu

Tolosaldeko ezarpena edo jarduera lotura	20 puntu
Zerbitzu gaitasun operatiboa	20 puntu
Prestakuntza teknikoa eta PRL	15 puntu
Giza eta baliabide materialak	20 puntu
Tokiko lehen sektorearekiko konpromisoa	10 puntu

- Esperientzia urte bakoitzeko puntuatu ahal izango da.
- Tolosaldean egoitza duen eskatzailea izatea
- Gaitasun operatiboa zerbitzuaren erantzun abiadura, makinen erabilgarritasun mailaz, matxura kopuru eta matxuren arteko denbora, fakturazioa egiteko gaitasun propioa izatea...eta antzeko informazioaz baloratuko da
- Prestakuntza teknikoa, formazioaren bidez egiaztatzen da eta PRLa, horretarako enpresak duen dokumentu eta kontratatuta izan ditzakeen zerbitzu profesionalen bidez egiaztatzen da.
- Giza baliabideak, pertsonen kopurua eta hauen egokitasuna eta baliabide materiala, zerbitzu hau emateko beharrezko traktorearen izatea, makinak gordetzeko leku egokiak izatea eta bestelako gailu osagarrien egokitasunarekin neurtuko da.
- Elkarte sektorialetan, gestio zentroetan, sindikatuetan kide den edo ez...baloratuko da.

Tolomendik elkarrizketak edo informazio osagarria eskatu ahal izango ditu.

11. HAUTAKETA PROZEDURA

Eskabideak deialdian ezarritako epean aurkeztuko dira.

Tolomendik:

- dokumentazioa egiaztatu ahal izango du,
- zuzenketak eskatu ahal izango ditu,
- eta ebaluazio teknikoa egingo du.

Hautaketa ebazpena arrazoitua izango da.

Tolomendik deialdia hutsik uzteko eskubidea izango du.

12. IRAUPENA

Hautaketak 5 urteko indarraldia izango du.

Jarraitutasuna baldintzatuta egongo da:

- betebeharren betetze egokira,
- makinariaren egoerara,
- eta zerbitzuaren interes publikora.

Alokairu edo erabilera bakoitza kontratu indibidual baten bidez formalizatuko da.

13. DIRULAGUNTZA PUBLIKOEKIKO BETEBEHARRAK

Adjudikaziodunek lankidetzan jardun beharko dute:

- makinariaren trazabilitatean,
- erabilera kontrol publikoetan,
- dokumentazio justifikazioetan,
- eta laguntza publikoetatik eratorritako obligazioetan.

14. KANPORATZE ETA SUNTSIARAZTE ARRAZOIAK

Honako hauek izango dira kanporatze edo kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

- segurtasun araudiaren ez-betetze larriak,
- asegururik ez edukitzea,
- makinariaren erabilera desegokia,
- hirugarrenei baimenik gabe lagatzea,
- dokumentazio faltsutzea,
- ordainketa ez-betetzeak,
- trazabilitate sistemak ez betetzea,
- edo ezarritako baldintzak modu errepikatuan urratzea.

15. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Parte hartzaileek gutxienez honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- eskabidea,
- IFK/NAN,
- RETA edo jarduera alta,
- zerga eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak,
- aseguru poliza,
- jardueraren memoria zehaztua proposamena baloratzeko beharrezko den informazio guztia modu argian eta zabalean azaltzen duena.
- baliabide materialen eta giza baliabideen zerrenda eta hauen formakuntza eta ezaugarriei buruzko zehaztasunak

- eta erantzukizunpeko adierazpena.

16. TOLOMENDIREN ESKUMENAK

Tolomendik ahalmena izango du:

- makinariaren erabilera lehentasunak ezartzeko,
- kontrol teknikoak egiteko,
- makinariaren erabilera mugatzeko,
- eta interes publikoarekin lotutako erabakiak hartzeko.

17. KONTRATUAREN BERRIKUSPENA

Bi aldeek horrela erabaki ezkeroz, kontratua berrikusteko aukera egongo da.

18. JURISDIKZIOA

Edozein gatazka edo interpretazio auzitarako, alderdiak Tolosako Epaitegi eta Auzitegien menpe jarriko dira.